



ORFEON DONOSTIARRA
DONOSTIAKO ORFEOIA

2023KO MEMORIA





ORFEON DONOSTIARRA

DONOSTIAKO ORFEOIA

Argazkiak

Azala:
Juantxo Egaña

Donostiako Orfeoiaren artxiboa



Aurkibidea

✚ Zuzendaritza Batzordea	7
✚ Ohorezko adiskideak eta adiskideak	8
✚ Lehendakariaren agurra	9
✚ 2023. urtea zenbakitan	10
✚ Memoria artistikoa	11
✚ Hezkuntza jarduerak	29
✚ Interpretatutako obrak	31
✚ Orkestrak, zuzendariak eta bakarlariak	33
✚ Emanaldiak	37
✚ Agertokiak	39
✚ Abeslarien errolda	40
✚ Urteko laburpen artistikoa	42
✚ Eskaintzak	43
✚ Grafikoak	46



Zuzendaritza Batzordea

Lehendakaria	Elosegui Larrañeta, Antxon
Lehendakariorde abeslaria	Vivanco Larrea, Iñigo María
Zuzendari artistikoa	Sainz Alfaro, José Antonio
Abeslariak ez diren batzordekideak	Arzak Arratibel, Juan María Bagüés Erriondo, Jon Comendador Azcarraga, Ramón De La Cuesta Arzamendi, José Luis Echenique Echeverria, José Antonio Gabilondo Pujol, Iñaki Sáinz de Vicuña Ancin, José María
Orfeoiko kide ohia	Vázquez Peña, Ángel
Batzordekide abeslariak	Aduriz Tellaetxe, Agustín Agirre Murguzur, Juan Bautista Etxabe Telleria, Jon Imanol Franco Vidal, Ana Rosa Gamboa Uriarte, Nestor González Amundarain, Aritz Lizarza Mendizabal, Juan Paulo Martín Estremo, M ^ª Isabel Zubillaga Odriozola, Ramón María
Idazkari nagusia eta diruzaina	Esturo Elejalde, Sonia

Donostiako Orfeoia kultur erakunde pribatua da, irabazi asmorik gabea, egiten dituen emanaldietatik eta adiskideen ekarpenetatik finantzatzen dena, bai eta erakunde publiko hauen laguntzetatik ere:



Horrez gain, honako adiskideen eta ohorezko adiskideen laguntza ere jasotzen du:

OHOREZKO ADISKIDEAK

ANTIGUO BERRI SA
 ARCELORMITTAL GIPUZKOA SL
 BM SUPERMERCADOS
 EL DIARIO VASCO
 ESTRATEGIA EMPRESARIAL
 EUREKA! Zientzia Museoa
 BANCO SANTANDER FUNDAZIOA
 EDUARDO CHILLIDA ETA PILAR BELZUNCE
 FUNDAZIOA
 CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA
 IBERDROLA FUNDAZIOA
 GIPUZKOAKO OZEANOGRAFIA FUNDAZIOA
 FYM HEIDELBERG CEMENT GROUP – CEMENTOS
 REZOLA
 ORONA FUNDAZIOA
 HOTEL DE LONDRES Y DE INGLATERRA
 HOTEL M^a CRISTINA
 IBERIA LINEAS AEREAS DE ESPAÑA SA
 IMQ
 IRIZAR KOOPERATIBA ELKARTEA
 KUTXABANK
 LABORAL KUTXA
 MONDRAGON
 PETRONOR
 RADIO SAN SEBASTIAN (SER IRRATIA)
 SABADELL GUIPUZCOANO
 SDV CONSULTORES
 TECNALIA RESEARCH & INNOVATION
 UNICEF
 EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

ADISKIDEAK

ADEGI
 BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA
 CENTRO KURSAAL – KURSAAL ELKARGUNEA SA
 AYETE IKASTETXE NAGUSIA
 SUKIA ERAIKUNTZAK SL
 NAFARROAKO UNIBERTSITATEKO DONOSTIAKO
 GOI INGENIARITZA ESKOLA (TECNUN)
 GRUPO ABANCA – BANKOA SA
 ETXEPLAS
 HEREDEROS DEL MARQUÉS DE RISCAL
 IDOM SA
 IMCOINSA 1985 SA
 LOGIKALINE SL
 MICHELIN
 REAL SOCIEDAD DE FUTBOL KSA

2023ko abenduko datuak



Lehendakariaren agurra



Ohorea da niretzat 2023ko memoria artistikoa aurkezteko lerro hauek idaztea, Donostiako Orfeoiko lehendakari bezala lehen aldiz egin ere.

Ondo dakizuen bezala, iragan azaroan heldu nintzen lehendakaritzara, eta, horrenbestez, ez dut asko esateko 2023ko jarduera artistikoen gainean, gehiago bizi baititut Donostiako Orfeoiko bazkide eta jarraitzaile gisa lehendakari gisa baino.

Hala ere, nabarmendu beharra dut memoria artistikoan jasotako ekitaldiek eta jarduerak ezin hobeto islatzen dutela beste behin ere Donostiako Orfeoia musikarekin, kulturarekin,

Gipuzkoarekin eta Donostiarekin duen konpromiso irmoa. Orfeoia 30 emanaldi eskaini ditu guztira 2023an, eta tartean Alacant, Madril, Logroño, Bartzelona eta Zaragoza bezalako Estatuko hirietan zein atzerrian eskainitako kontzertuak ere badira.

Horrenbestez, nire aitortza adierazi nahi diot Donostiako Orfeoiari urte luzetako lanaren eskutik lortu duen esanguragatik, pilatu duen historia bikainagatik, kultur zigiluagatik; nire errespetua eta poza agertzea besterik ez dut. Aitortu behar dut ere Orfeoiko lehendakaritza hartu nuenetik hona ezagututako guztia ikusita, konturatu ahal izan naizela jarraitzaile huts bezala abesbatzaren gainean nuen pertzepzioa oso motz geratzen zela.

Horregatik, hainbeste maite dugun Orfeoiaren historia eta ontasunak errespetatu, mantendu eta etorkizunera proiektatzeko konpromisoa agertu nahi dut. Abiatu dugun aro berrian, helburu bikoitza dugu: abesbatzaren historiako onena gordetzea eta gure erakundeak etorkizunean ere gorenean jarraitzea bermatuko duen aldaketa-prozesua martxan jartzea.

Amaitzeko, beste urte batez Orfeoia babesten jarraitu duten guztiei nire esker ona adierazi nahi diet: bazkideei, adiskideei, ohorezkoa bazkideei eta Orfeoiaren misio kulturala posible egiten duten erakunde publiko eta babesle guztiei.

Zuzendaritza Batzordeko kide guztiei ere esker on berezia agertu nahi diet, eskuzabaltasun osoz egindako lan guztiagatik, ahalegin guztiagatik. Nola ez, 2023an zeharreko ekarpen artistikoaren arrakastaren oinarri diren abeslariak ere niri zorionik beroena, guzti-guztiei.

Antxon Elosegui Larrañeta
Presidentea



2023. urtea zenbakitan

Orfeonistas / Orfeoilariak	177
Taller de música Antxón Ayestaran / Antxon Ayestaran musika tailerra	99
Coros escolares / Eskola koruak	35
Aula de violín / Biolin ikasgela	10
TOTAL / GUZTIRA	321

JUNTA DIRECTIVA / ZUZENDARITZA BATZORDEA	20
ESTRUCTURA / EGITURA	6
PROFESORES / IRAKASLEAK	5

Datos a 31 de diciembre de 2023 / 2023ko abenduaren 31ko datuak



Memoria artistikoa

Aldaketa urtea izan da 2023a Donostiako Orfeoiarentzat, baina baita ekitaldiz betetako urtea ere. Horren erakusle, urte guztian zehar abesbatza ekitaldiz ekitaldi ibili da, sari banaketetan, kontzertuetan eta biratan murgilduta.

Guztira 30 kontzertu eman ditu Orfeoiak, bai Donostian, bai Estatuan, bai nazioartean. Abesbatzak agenda bete-betea izan du urteko 12 hilabeteetan zehar: zenbait aldiz izan da nazioartean, izen handiko zuzendariekin, orkestrekin, tenorrekin eta sopranoekin aritu da, askotariko obrak interpretatu ditu, Madrilen, Bartzelonan, Santanderren, Errioxan, Zaragozan edo Alacanten aritu da...

Urteko une berezietako bat martxoan heldu zen, Donostiako Orfeoiak lehen aldiz abestu zuenean Bartzelonako Sagrada Família tenplu ezagunean.

Ondoren ekaina iritsi zen, eta, ekainarekin batera, Jose Maria Echarrik 27 urte baino gehiago karguan igaro ondoren Orfeoiko lehendakaritza uzteko hartutako erabakia. Azkenean, azaroan hautatu zen presidente berria, Antxon Elosegui Larrañeta jauna.

Hain zuzen ere, lehendakari berria azaroan 17an aurkeztu zen jendaurrean bazkideen, adiskideen eta prentsaren aurrean, Donostiako Kursaal jauregian egindako urteroko bazkideen kontzertuarekin.

Urtea amaitzeko, Orfeoiak Gabonetako argiak pizteko ekitaldian parte hartu zuen Donostian, bildutako herritarrak aho bete hortz utziz *Carmina Burana* bezalako obrak interpretatuz munduko zenbait flyboard txapeldunek Urumea ibaian erakustaldia egiten zuten bitartean. Urteari amaiera emateko, Estatuan barna astebeteko bira bat egin zuen Orfeoiak, bost kontzertu emanez.

Jarraian, abesbatzarentzat oso berezia izan den urtearen hilabetez hilabeteko laburpena jaso dugu:

URTARRILA

2023. urtearen hasieran abesbatza hurrengo hilabeteetarako errepertorioa prestatzen eta egoitzan bertan entseguak egiten kontzentratu zen.

Horrez gain, Orfeoiak Donostiako bi erakunderen aitortza jaso zuen urtarrilean zehar. Alde batetik, 425 Kultur Elkartek danborradako lau konpainia zaharrei omenaldia egin zien, eta, ekitaldi berean, Orfeoia bera ere aitortu nahi izan zuen. Ekitaldia Donostiako udaletxeko udalbatza-aretoan egin zen, urtarrilaren 12an. José María Echarri lehendakaria izan zen Orfeoia «hiriaren zerbitzura egoteagatik» emandako omenezko plaka jasotzeko arduraduna.



Bestalde, urtarrilaren 18an, Unión Artesana elkarteak izan zen abesbatza omendu nahi izan zuena. Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen egoitzan egindako ekitaldian, José Antonio Sainz Alfaro Orfeoiko zuzendariak abesbatzaren 125. urteurrena gogoratzeko oroigarri bat jaso zuen Jon Insausti Donostiako zinegotziaren eskutik.





Urtarrilaren 20an, urtero legez, Orfeoiak **San Sebastian eguneko meza** tradizionalan parte hartu zuen Santa Maria basilikan, hau da, Koruko Andre Mariaren basilikan. Meza santua Fernando Prado Donostiako gotzainak eman zuen. Egun oso berezia izan zen, eta, noski, ez ziren falta izan danborradaren bereizgarri diren kolore urdineko zapiak.



OTSAILA

Otsailaren 4an, Orfeoiak Ayete Ikastetxe Nagusiak antolatutako **XIV. Gazteen Kontzertu Solidarioan** parte hartu zuen, Donostiako Kursaal jauregian egindakoa. Orfeoiak Carl Orff konpositorearen *Carmina Burana* obra interpretatu zuen.

Bildutako dirua Caritas Gipuzkoa erakundeak Donostian bizi diren etxegabeei laguntzeko martxan duen Hotzaldi proiektura bideratu zen. Horrenbestez, ikus daitekeen bezala, aurten ere Orfeoiak gizarte proiektuetan bere aletxoak jartzen jarraitu du.

Egun gutxi batzuk geroago, zehazki otsailaren 16tik aurrera, Orfeoiaren egoitzan






ganbera-musikaren zikloa abiatu zen, Orfeoiak berak antolatu eta sustatzen duena Kutxa Fundazioarekin, Musikenerekin, Euskal Herriko Gazte Orkestrarekin eta Donostia Musikarekin elkarlanean. Zehazki, zikloaren aurtengo edizioa bederatzi kontzertuk osatu zuten.

MARTXOA

Abesbatzak martxoan eman zuen urteko lehen kontzertua Donostiatik kanpo, zehazki, Madrilgo Musika Auditorioko **Excelentia** denboraldiaren barruan.



Martxoaren 4an izan zen, eta Orfeoiak Felix Mendelssohn konposatzailearen *Bigarren Sinfonia* obra eskaintzeko kontzertuaren bigarren zatian hartu zuen parte. Santa Cecilia Orkestrarekin batera eman zuen kontzertua Orfeoiak, Fuad Ibrahimov maisuaren gidaritzapean. Ibrahimov Alemaniako Munich hiriko New Philharmonic Orchestra eta Azerbaijango Baku Chamber Orchestra orkestretako egungo zuzendaria da, eta aurretik ere zuzendua zuen Donostiako Orfeoa, 2022an Okzitaniako Tolosa hirian zehazki.

Martxoaren 19an, berriz, Orfeoa Donostiako San Bizente eliza aritu zen, **Euskal Elizbarrutietako Misionen 75. urteurrena gogoratzeko egindako kontzertuan** hain justu. José Antonio Sainz Alfaroren batutaren gidaritzapean egindako kontzertuan, Bach, Aita Madina, Haendel, Mozart, Webber, Cohen, Casals, Fauré, Garbizu, Newton edo Boito bezalako konpositoreen obrak interpretatu zituen Orfeoiak. Ohi bezala, organoa Gerardo Ribón musikariak jo zuen.

Hilabetea biribiltzeko, hitzordu oso berezia izan zuen Donostiako Orfeoiak, Bartzelonako **Sagrada Família** tenplu ezagunean lehen aldiz abesteko aukera izan baitzuen. Martxoaren 26an egin zuen,

75 ANOS URTE
Desde 1948

MISIONES DIOCESANAS VASCAS
ELIZBARRUTIETAKO MISIOAK

CONCIERTO CONMEMORATIVO
OROITZAPENEZKO KONTZERTUA

19:00
19 de Marzo
Martxoak 19
2023

ORFEÓN DONOSTIARRA
DONOSTIAKO ORFEOIA

Entrada gratuita hasta completar aforo
Doako sarrera lekua bete arte

Orfeon Donostiarra
Donostiako Orfeoa

Iglesia San Vicente
San Sebastián
San Bizente eliza
Donostia

MMDVV
elizbarrutietako misioak
misiones diocesanas vascas
Donostia-San Sebastián

misiones.org



domeka, **2023ko Aste Santuko programazioaren barruan.**

Donostiako Orfeoiaren musikak basilika ezaguna hartu zuen. José Antonio Sainz Alfaroren zuzendaritzapean eta Juan de la Rubia basilikako organo-jotzaile titularraren akonpainamenduarekin, abesbatzak Händel, Verdi o

Mahler konpositoreen obrak interpretatu zituen besteak beste. Tomás Garbizu euskal musikagilearen *Ave María* ere interpretatu zuen. Ez zen euskal musikari baten obra bakarra izan, Jagoba Astiazaran musikari, konpositore eta Orfeoiko kide gipuzkoarraren *Argi Izpi* lana ere interpretatu baitzuen; are, aintzat hartu behar da espresuki Bartzelonako Sagrada Família basilikan estreinatzeko konposatutako obra dela, eta tenpluaren fatxadetako batekin lotuta dagoela, Jaiotzaren fatxadarekin zehazki.



APIRILA

Apirilaren 16an Donostiako Victoria Eugenia antzokian **Etiopia Utopia Fundazioaren aldeko kontzertu solidarioan** parte hartu zuen Orfeoiak. Lortutako irabaziak Etiopiako Tigray eskualdera laguntza humanitaria bidaltzeko erabili ziren. Eskualdea guztiz suntsituta dago 2020an hasitako gerraren ondorioz eta lau milioi pertsonatik gora laguntza humanitario beharrean dira bertan egun. José Antonio Sainz Alfaro aritu zen Orfeoiaren zuzendaritzan eta Borja Rubiños piano-jotzailearen laguntza izan zuen.

Apirilaren 21ean, **XXII. Donostiako Orfeoia-Euskal Herriko Unibertsitatea Saria** entregatzeko ekitaldia egin zen. Euskal Herriko Unibertsitatearen Ignacio Maria Barriola Zentroko auditorioan egin zen ekitaldia. Musika ikerketako saria *ex aequo* lortu zuten Otilia Fidalgo González eta María Victoria Urruzola Esnaola doktoreek, hurrenez hurren “La música religiosa de Valentín de Zubiaurre, Maestro de la Real Capilla de Madrid (1875-1914)” eta “Un programa de prevención del miedo escénico para niños/as de 8 a 12 años” lanengatik. Angel Briz musikari eta partitura moldatzaileak ere jaso zuen sari bat, musikaren munduan egindako ibilbide oparoagatik.





Behin ekitaldia amaituta, Donostiako Orfeoiak emanaldi labur bat eskaini zuen, abesbatzaren errepertorio tradizionaleko obrak eskainiz José Antonio Sainz Alfaroren zuzendaritzapean, Jon Urdapilleta piano-jotzailearen akonpainamenduarekin.

Bi egun geroago, Hendaiaiko Udalak eta parrokiak gonbidatuta, Orfeoiak **1793an Ventura Caro jeneralaren tropek Hendaia bonbardatu zutenetik 230 urte igaro zirela gogoratzeko antolatutako ekitaldietan** parte hartu zuen. Abesbatza José Antonio Sainz Alfaroren zuzendaritzapean eta Gerardo Rifón organo-jotzailearen akonpainamenduarekin aritu zen, eta Aita Madina, Tomas Garbizu, Casals, Mozart, Bach, Fauré, Haendel, Newton, Cohen eta Boito konpositoreen lanak interpretatu zituen besteak beste.

MAIATZA

Maiatzaren 11n, **Zallako Zineantzokian** kontzertu bat eskaini zuen Orfeoiak pianoaren akonpainamenduarekin, Bizkaiko herriko 47. musika astearen barruan. Abesbatzak askotariko obrak interpretatu zituen, besteak beste, zarzuela, habanera, euskal musika, zinemarako musika edo musika latino bezalako estiloak uztartuz. Abesbatza José Antonio Sainz Alfaroren zuzendaritzapean aritu zen, Jon Urdapilleta piano-jotzaile donostiarren akonpainamenduarekin.





Maiatzak 14an, **Logroñon** aritu zen Orfeoia, Errioxako Jaialdiaren 2. edizioan abesbatzaren lehen emanaldia eskainiz. Errepertorioak askotariko obrak bildu zituen, besteak beste, zarzuela, habanera, euskal musika, zinemarako musika edo musika latinoa bezalako estiloak uztartuz. Abesbatza José Antonio Sainz Alfaro zuzendari titularren gidaritzapean aritu zen, Jon Urdapilleta piano-jotzaile donostiarraren akonpainamenduarekin.



EKAINA

Ekainaren 5ean, Orfeoiko hainbat abeslarik Patxi Bisquert zuzendariaren **“Ombuaren itzala”** filmaren grabaketan parte hartu zuten. XIX. mende amaierako arropak jantzita eta garaiko estiloarekin behar bezala karakterizatuta, Orfeoiko 40 gizona filmeko eszena baten grabaketan parte hartu zuten; zehazki, Orfeoia Pedro Mari Otaño bertsolariaren etxepera abestera doan eszena, Ameriketara joan aurretik behin betiko agurtzeko.



Ekainaren 19an **ohiko batzar orokorra** egin zen. Bertan, José María Echarri Campo Donostiako Orfeoiko lehendakariak kargua utzi zuen, zazpi aldiz berrautatua izan eta lehendakaritzan 27 urte egin ondoren. Karguan etenik gabe denbora gehien eman duen lehendakaria da Echarri.

Batzarrean bertan, José María Echarrik ia hiru hamarkada luzez eskuzabaltasun osoz egindako lan oparoa eskertu nahi izan zuen Zuzendaritza Batzordeak. Ondoren, azaroaren 14an zehazki, presidente berria izendatzeko ezohiko batzar orokorra egin zen, eta Antxon Elosegui Larrañeta izan zen hautatua.



Bien bitartean, Orfeoian jo eta su jarraitu zuen lanean, kontzertuak prestatuz. Horren erakusle, ekainaren 27an Musikeneko auditorioan aritu zen, **koru kontuari buruzko nazioarteko sinposio** baten barruan. Hautatuko obra Carl Orff konpositorearen *Carmina Burana* izan zen, perkursio eta pianorako bertsioan. Emanaldia Musikeneren eta Donostiako Orfeoiaren arteko elkarlan akordioaren fruitu izan zen, hau da, Gipuzkoan musika arloan erreferentziakoak diren bi erakunderen arteko akordioarena.





UZTAILA

Uztailean Donostiako Orfeoiak berriro egin zuen topo Espainiako Orkestra Nazionalarekin Madrilen, hilabete asko lehenagotik sarrera guztiak salduak zituen kontzertu batean. Aurretik, 1970eko ekainaren 28an arituak ziren elkarrekin Espainiako Orkestra Nazionala, Donostiako Orfeoia eta Iruñeko Orfeoia, Espainian elkarrekin lehen aldiz aurkeztuz **Gusta Mahler konpositorearen *Zortzigarren Sinfonia* ("Mila musikarien sinfonia" bezala ere ezagutzen da),**



Alhambra Karlos V.aren jauregian, Granadako Nazioarteko Musika eta Dantza Jaialdiaren barruan eta Rafael Frühbeck de Burgos zuzendariaren gidaritzapean.

Bada, urte askoren ostean, Espainiako Orkestra Nazionalak berri egin zuen

topo Donostiako eta Iruñeko orfeoiekin, eta hitzordura Espainiako Abesbatza Nazionala ere batu zen. Guztira hiru kontzertu eman zituzten guztiek batera David Afkham Espainiako Orkestra Nazionaleko zuzendari titularraren gidaritzapean, mugarri izan zen 1970eko kontzertua gogoratzeko antolatutako egitasmoaren eskutik.

Uztailaren erdialdera, berri, Orfeoiak **Miguel Ángel García Cañamero Espainiako Abesbatza Nazionaleko zuzendaria** gonbidatu zuen Donostiara, Orfeoia egoitzan zenbait entsegu zuzentzeko asmoz abuztuko Musika Hamabostaldian egitekoa zen kontzertu bat behar bezala prestatzeko. Hain justu, abuztuko kontzertuan Madrilén interpretatu berri zuen Mahlerren *Zortzigarren Sinfonia*





interpretatu behar zuen berriro Orfeoiak. Esperientzia benetan positiboa izan zen eta Orfeoiko kideek izugarri gozatu zuten Valentziako zuzendariaren irakaspenekin.



Uztailaren 23an, bestalde, Donostiako Orfeoiak Baigorriko Etxauzia jauregian egindako kontzertu batean parte hartu zuen Et Incarnatus orkestrarekin, Euskal Herria mendebaldetik ekialdera zeharkatzen duen **Urmuga** jaialdiaren barruan.

Kontzertuan Eltzegor taldearen *Sasitik sasira* kantata interpretatu zen. Olaia Intziarte, Estitxu Pinatxo, Rafa Rueda, Jokin

Pinatxo, Garikoitz Mendizabal, Bixente Martínez eta Baigorriko gaiteroek ere parte hartu zuten Baigorriko hitzorduan.



Uda bete-betean, ekainaren 29an, Orfeoia Irunen izan zen. **Irun Hiria Musika Bandak 50. urteurrena** ospatu zuen, eta Donostiako Orfeoiarekin batera egitea erabaki zuen. Hala, bi musika elkarteotako kideak elkarrekin aritu ziren San Joan Plazan. Askotariko lanak eskaini zituzten elkarrekin, tartean opera, zarzuela eta euskal

obrak.

ABUZTUA

Abuztuaren 4an, Orfeoiak **Donostiako Musika Hamabostaldian** parte hartu zuen Rotterdameko Orkestra Filarmonikoarekin batera; zehazki, Lahav Shani Herbehereetako orkestrako zuzendari titularraren gidaritzapean Beethovenen *Bederatzigarren Sinfonia* interpretatuz. Hurrengo egunean, kontzertu bera errepikatu zen Santandergo Nazioarteko Jaialdiaren 72. edizioan.



Abuztuaren 18an, Musika Hamabostaldiaren barruan egindako kontzertuan, Mahlerren *Zortzigarren Sinfonia* interpretatu zuen beste behin Orfeoiak Donostiako Kursaal jauregian. Oraingo honetan, Euskadiko Orkestra, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, Iruñeko Orfeoia, Easo Eskolania eta Easo Gazte Abesbatza izan ziren Donostiako Orfeoiarekin batera aritu zirenak. Guztira 400 musikari baino gehiago elkartu ziren agertoki gainean, magiaz eta energiagaz betetako sinfonia bat eskainiz.






Abuztua ixteko, Orfeoiak lehen aldiz parte hartu zuen Frantziako **Rocamadour herriko jaialdian**, abuztuaren 25ean aire zabalean emandako kontzertuan. Gau magikoa izan zen, eta Orfeoiak Verdiren *Requiem* obra interpretatu zuen Pariseko Garde Républicaine orkestrarekin batera, Sébastien Billard bertako zuzendari titularraren gidaritzapean.



IRAILA

Irailaren 13an, Euskadiko Orkestrak eta Orfeoiak Mahlerren *Bigarren Sinfonia* (Berpizkundea) interpretatu zuten Donostiako Kursaal jauregian, Ramon Tebar maisuaren gidaritzapean eta Maria Jose Montiel (mezzosopranoa) eta Miren Urbieta (sopranoa) solistekin. Kontzertua Columbus Fundazioak antolatu zuen, **RenHacer** jaialdiaren barruan.



Jaialdiaren bigarren hitzordua irailaren 16an heldu zen, Arantzazun. Berriz ere Mahlerren *Bigarren Sinfonia* interpretatu zuten bertan Euskadiko Orkestrak eta Orfeoiak. Kontzertuaren hasieran, sorpresa gisa, *Aita Gurea* ere abestu zuen Orfeoiak Miren Urbieta sopranoaren akonpainamenduarekin.

Irailaren amaieran, José María Echarri Donostiako Orfeoiko lehendakari ohi eta egungo ohorezko lehendakariak Eusko Legebiltzarra bisitatu zuen, eta Bakartxo Tejeria bertako lehendakariarekin elkartu zen, abesbatzak erakundeekin duen harreman bikaina islatuz.



URRIA

Donostiako Orfeoiak organorako kontzertu bat eskaini zuen urriaren 4an Donostiako Santa Maria edo Koruko Andre Mariaren basilikan, **Gipuzkoako Aspace elkartearen alde**. Kontzertua elkartean 50. urteurrenaren kariatara egin zen, Aspace Egunaren barruan.



AZAROA

Azaroa hilabete garrantzitsua izan zen Donostiako Orfeoiarentzat, hilak 14an **presidente berria** izendatu baitzuen elkarreak: **Antxon Elosegui Larrañeta**.

Lehendabizi, Zuzendaritza Batzordeak aho batez onartu zuen Eloseguiaren hautagaitza, eta, ondoren, **ezohiko batzar orokorrak** gehiengoz osoz berretsi zuen erabakia. Horrenbestez, Antxon Elosegui Larrañeta (Tolosa, 1967) ekonomialariak hartu zuen José María Echarri



Camporen lekukotza Donostiako Orfeoiaren lehendakaritzan.



Azaroaren 17an, berriz, Donostiako Orfeoiaren bazkideentzako eta lagunentzako urteroko kontzertua egin zen. Euskadiko Orkestrarekin batera aritu zen Donostiako Orfeoia, José Antonio Sainz Alfaroren zuzendaritzapean Tomas Garbizuren *Ave María* eta Felix Mendelssohnen *Bigarren Sinfonia* (Lobgesang) eta 43. *salmoa* interpretatuz.



2023an mendeurrena ospatzen zuen Gaztainaren Orfeoia ere parte hartu zuen, Gaztelubide elkarteko danborradako ordezkari batzuekin batera. Horrez gain, Luchy Mancisidor Larrañaga ere omendu zen, Antxon Ayestarran Musika Tailerraren sortzailea eta zuzendari ohia. Ekitaldia José María Echarri Donostiako Orfeoiko ohorezko zuzendari izendatzeko ere baliatu zen.



Urtero legez, Donostiako Orfeoiko kideek **Santa Zezilia** ere ospatu zuten azaroan, musikarien zaindaria gogoratzeko. Hildako Orfeoiko kideen eta adiskideen omenezko meza eta ondorengo



emanaldia azaroaren 24an egin ziren. Meza San Bizente parrokian egin zen, eta, bertan, Orfeoiko kideek errepertorio zabal bat eskaini zuten José Antonio Sainz Alfaroren zuzendaritzapean eta Gerardo Rifón organo-jotzailearen akonpainamenduarekin, *Aita Gurea*, Mozarten *Ave Verum*, *Nigra Sum*, Mendelssohnen 43. *salmoa* eta Händelen *Hallelujah* obrak eskainiz besteak beste.

Behin ekitaldi liturgikoak amaituta, Orfeoiko kideek Hotel de Londres y de Inglaterra hotelera jo zuten, bertan zain zuten afariak eta ondorengo diploma eta sari banaketaz gozatzeko.



ABENDUA

Abenduari hasiera emateko, Orfeoiak **Donostiako Gabonetako argiak pizteko ekitaldian** parte hartu zuen. Sainz Alfaroren batutaren gidaritzapean, Orfeoiak Gabonetako zenbait obra interpretatu zituen milaka herritarren aurrean, tartean *Joy to the world* eta *Oi Bethlehem*. Era berean, Urumea ibaiko uretan egindako flyboard ikuskizun bat *Carmina Burana* abestuz lagundu zuen Orfeoiak.



Abenduaren 10etik aurrera, Orfeoiak sei hiri bisitatu zituen astebeteko bira batean. Sei kontzertu horietako lau Alacanteko Diputazioaren Auditorioko orkestra egoiliarra den **ADDA Orkestra Sinfonikoarekin batera** eskaini zituen Orfeoiak, Josep Vicent zuzendariaren gidaritzapean.

Kontzertuen errepertorioa Xavier Montsalvatge kataluniarraren *Cant espiritual* eta Beethovenen *Bederatzigarren Sinfonia* obrek osatu zuten. Kontzertuetan Erika Grimaldi (soprano), Airam Hernández (tenorra), José Antonio López (baritonoa) eta Teresa Iervolino (mezzosopranoa) abeslariak ere parte hartu zuten.

Lehen kontzertua **Alacanten** egin zen abenduaren 10ean, ADDA Orkestra Sinfonikoaren etxean bertan.



Egun bat geroago, **Madrilgo Musika Auditorioan** errepikatu zen kontzertua, **Ibermúsica** zikloaren barruan.



Abenduaren 12an Orfeoia Aragoi izan, **Zaragozako Auditorioko** Kontzertu Handien Denboraldian zehazki. Hurrengo egunean, hilak 13an, Bartzelonako **Palau de la Música Catalana** aretoan izan zen, Barcelona Camera zikloan.



Behin etxera itzulita, abenduaren 16an Orfeoia berriz ere irten zen Donostiatik, **Gasteizko Principal Antzokian Gabonetako kontzertu** bat emateko. Beste behin ere José Antonio Sainz Alfaro zuzendariaren gidaritzapean eta Jon Urdapilleta piano-jotzailearen akonpainamenduarekin, Orfeoiak *West Side Story*, *Medley*, *Moon River*, *Edelweiss* edo *Days of wine and roses* bezalako obrak interpretatu zituen.

Urtea behar bezala amaitzeko, Orfeoiak Donostiako bi parroketan eskaini zuen **Gabonetako kontzertu** bat prestatu zuen, José Antonio Sainz Alfaroren zuzendaritzapean eta Gerardo Rifón organo-jotzailearen akonpainamenduarekin. Kontzertuok **Donostiako Sustapenaren laguntza** izan zuten. Lehen hitzordua abenduaren 22an izan zen **lesu elizan**, eta, bigarrena, abenduaren 28an, **Altzako San Martzial elizan**.



Orfeoiaren harrobiko abesbatzak

Jarraian, Orfeoiaren harrobiko abesbatzek 2023an egindakoaren laburpen txiki bat jaso dugu.

Urtero bezala, **urtarrilaren 20an San Sebastian eguneko meza tradizionala** egin zen Santa Maria elizan, eta, bertan, Orfeoiko kide guztiek parte hartu zuten, hurrek zein helduek.

Maiatzaren 6an, larunbata, Donostiako Orfeoiko hurren abesbatzek **Pasai Donibaneko Musika Jardunaldietan** abestu zuten, bertako San Joan Bataiatzailearen parrokia-elizan.

Ekainaren 14an, berriz, **ikasturte amaierako kontzertua** egin zuten San Bizente elizan. Orfeoiko hurren abesbatzekin batera Jakintza ikastolako eta Intxaurrendoko ikastolako abesbatzak ere aritu ziren.

Ikasturtean zehar, Orfeoiak 30 hurreko abesbatza bat izan du martxan Donostiako Antigua auzoko **Jakintza** ikastola publikoan.



Antxon Ayestaran musika tailerra

Antxon Ayestaran musika tailerrak martxan jarraitzen du Orixe ikastolan eta Aldapeta Maria ikastetxean, 4 eta 7 urte arteko haurrekin.

Haurrek abestiekin, jolasekin, dantzekin, antzezlanekin eta musika-tresnekin gozatzen aukera dute tailerrotan. Musikaren bitartez kontatutako istorioek eta istorioak kontatzen dizkiguten musikak egiten dute bat tailerrotan. Bertan parte hartzen duten haurrak egunen batean Orfeoiko kide izango diren itxaropenarekin, edo, nork daki, agian, etorkizunean gure auditorioetako ikusle izango dira.

Irakasleak: Amaia Echeverria, Carol López de Landatxe eta Ana Salaberria.

Biolin ikasgela

2023-2024 ikasturtea maila aurreratuko, maila ertaineko eta hastapeneko mailako ikasleekin hasi zen. Ohiko entzunaldiak ere egin ziren, ikasleak bereziki motibatzea lortuz ere; ikasleek bi aldiz izan zuten entzunaldietarako ilusio handiz prestatutako piezak jotzeko aukera, senitartekoen eta lagunen gozamenerako.

Ikasturte benetan berezia izan da guztiontzat, eta benetan eskertu behar dugu ikasle guztiek izandako jarrera bikaina. Nabarmentzekoa da ere ikasleek erakutsitako trebezia.

Irakasleak: Catalin eta Antonio Bucataru



Obras interpretadas / Interpretatutako obrak

SINFÓNICO-VOCAL / SINFONIKO BOKALAK	AUTOR / EGILEA	VECES / ZENBAT ALDIZ
CARMINA BURANA	ORFF, Carl	2
1812 OVERTURE	TCHAIKOVSKI, Piotr	1
BIGARREN SINFONIA "Lobgesang"	MENDELSSOHN, Felix	2
II SINFONÍA "Resurrección"	MAHLER, Gustav	2
ZORTZIGARREN SINFONIA "Mila musikarien sinfonia"	MAHLER, Gustav	4
BEDERATZIGARREN SINFONIA	BEETHOVEN, Ludwig van	6
CANT ESPITIRUAL *	MONTSALVATGE, Xavier	4
CAPRICHIO VARIOPINTO	ARAGÜÉS, Tomás	1
LITANIES À LA VIERGE NOIRE	POULENC, Francis	1
REQUIEM	VERDI, Giuseppe	1
WEST SIDE STORY	BERNSTEIN, Leonard	1
TOTAL OBRAS / OBRAK GUZTIRA:		11
*OBRAS DE ESTRENO PARA EL ORFEÓN / ORFEOIAK LEHEN ALDIZ INTERPRETATUTAKO OBRAK		1

POLIFONÍA / POLIFONIA	AUTOR / EGILEA	VECES / ZENBAT ALDIZ
ADESTE FIDELES	WADE, John Francis / Moldaketa: WILLCOCKS, David	1
AITA GUREA	MADINA, Aita	5
ALL ON A SILENT NIGHT *	SLAGLE MAYO, Becki	4
AMAZING GRACE *	NEWTON, John	5
ARGI IZPI *	ASTIAZARAN, Jagoba	1
AVE MARIA *	GARBIZU, Tomás / Egokitzapena: ASTIAZARAN, Jagoba	7
AVE VERUM	MOZART, Wolfgang Amadeus	2
AVE VERUM	JENKINS, Karl	3
BLOQUE DE ANUNCIOS		1
CANTIQU DE JEAN RACINE	FAURÉ, Gabriel	2
DAYS OF WINE AND ROSES	ADAM, Adolph / Moldaketa: HOPE, Peter	1
EDELWEISS	RODGERS, Richard & HAMMERSTEIN, Oscar	6
HALLELUJAH	COHEN, Leonard	3
I'M DREAMING OF A WHITE CHRISTMAS	BERLIN, Irving / Moldaketa: HOPE, Peter	2
JOY TO THE WORLD	HAENDEL, Georg Friedrich	4
LA GOLONDRINA	PAGÁN, José	3
LA PALOMA	YRADIÉ, Manuel / Moldaketa: PAGÁN, José	3
MEDLEY		4



MISSA CHORALIS	REFICE, Liciano	2
MOON RIVER	MANCINI, Henry	4
NELLA FANTASIA	MORRICONE, Ennio	2
NIGRA SUM	CASALS, Pau	5
O HOLY NIGHT	ADAM, Adolph / Moldaketa: HARRIS, Peter	3
43. SALMOA	MENDELSSOHN, Felix	3
SALVE	REFICE, Liciano	1
WIEN, DU STADT MEINER TRÄUME	SIECZYNSKI, Rudolf	3
YOU RAISE ME UP	LOVLAND, Rolf & GRAHAM, Brendan	2
ZADOK THE PRIEST	HAENDEL, Georg Friedrich	5
TOTAL OBRAS / OBRAK GUZTIRA:		28
*OBRAS DE ESTRENO PARA EL ORFEÓN / ORFEOIAK LEHEN ALDIZ INTERPRETATUTAKO OBRAK		4

FOLKLORE / FOLKLOREA	AUTOR / EGILEA	VECES / ZENBAT ALDIZ
AURTXOA SEASKAN	OLAIZOLA, Gabriel	6
BAGA, BIGA, HIGA	LABOA, Mikel	1
BÉSAME MUCHO	VELÁZQUEZ, Consuelito / Moldaketa: GALVÁN, José	3
EL DÍA QUE ME QUIERAS	GARDEL, Carlos	3
FESTARA	SANTESTEBAN, José Juan	1
LAU TEILATU	PÉREZ, J. C.	1
MAITE	SOROZABAL, Pablo	3
SAN SEBASTIAN MARTXA	SARRIEGI, Raimundo / Moldaketa: OCÓN, Juanjo	1
TOTAL OBRAS / OBRAK GUZTIRA:		8
*OBRAS DE ESTRENO PARA EL ORFEÓN / ORFEOIAK LEHEN ALDIZ INTERPRETATUTAKO OBRAK		

EXTRACTOS VARIOS / ZENBAIT ZATI	AUTOR / EGILEA	VECES / ZENBAT ALDIZ
4 PEZZI SACRI "Stabat Mater"	VERDI, Giuseppe	1
140. KANTATA "Gloria, sei dir gesungen"	BACH, Johann Sebastian	1
CARMINA BURANA "Ave Formosissima"	ORFF, Carl	1
CARMINA BURANA "O Fortuna"	ORFF, Carl	2
CARMEN "Les voici"	BIZET, Georges	1
ELIAS "Denn er hat seinen Engeln befohlen"	MENDELSSOHN, Felix	3
IL TROVATORE "Coro di Zingari"	VERDI, Giuseppe	1
MEFISTOFELE "Ave Signor"	BOITO, Arrigo	4
MESIAS "Behold the Lamb of God"	HAENDEL, Georg Friedrich	2
MESIAS "For unto us a child is born"	HAENDEL, Georg Friedrich	1
NABUCCO "Va pensiero"	VERDI, Giuseppe	1
PETITE MESSE SOLENNELLE "Kyrie"	ROSSINI, Gioachino	3



PETITE MESSE SOLENNELLE "Cum sancto Spiritu"	ROSSINI, Gioachino	1
PIE JESU	WEBER, Adam Lloyd	5
REQUIEM "Wie lieblich sind deine Wohnungen"	BRAHMS, Johannes	1
REQUIEM "In Paradisum"	FAURÉ, Gabriel	4
BIGARREN SINFONIA "Berpizkundea" – azken korua	MAHLER, Gustav	1
NAVIDAD "Oi Bethlehem"	ARAGÜÉS, Tomás	4
KANTALDIA "Xalbadoren heriotzean"	URKIZU, Iñaki	1
KANTATA "Sasitik sasira" *	Fernando San José, UNSAIN / Moldaketa: SAN MIGUEL, Jose Antonio. Letra: OSTOLAZA, José Mari "Xalbardin"	1
LEIDOR "Coro de brujas – Sorgin Hots" *	MOCOROA, Eduardo	1
DON MANOLITO "Ensalada madrileña"	SOROZABAL, Pablo	1
LA DEL SOTO DEL PARRAL "Ronda de enamorados"	SOUTULLO, Reveriano & VERT, Juan	3
LA GRAN VÍA "Chotis del Elíseo"	CHUECA, Federico	1
LA GRAN VÍA "Vals del Caballero de Gracia"	CHUECA, Federico	3
LA VERBENA DE LA PALOMA "Seguidillas"	BRETÓN, Tomás	4
TOTAL OBRAS / OBRAK GUZTIRA:		26
*OBRAS DE ESTRENO PARA EL ORFEÓN / ORFEOIAK LEHEN ALDIZ INTERPRETATUTAKO OBRAK		2

Orquestas, directores, solistas / Orkestrak, zuzendariak eta bakarlariak

ORQUESTAS / ORKESTRAK

ADDA – ALACANTEKO ORKESTRA SINFONIKOA

BANDA DE MÚSICA CIUDAD DE IRUN / IRUN HIRIA MUSIKA BANDA

ET INCARNATUS ORKESTRA

EUSKADIKO ORKESTRA

ROTTERDAMEKO ORKESTRA FILARMONIKOA

ESPAINIAKO ORKESTRA NAZIONALA

NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA

ORCHESTRE SYMPHONIQUE DE LA GARDE RÉPUBLICAINE

SANTA ZEZILIA ORKESTRA KLASIKOA

TOTAL / GUZTIRA: 9



SOLISTAS VOCALES / ABESLARI BAKARLARIAK	
ARROYO, Estibaliz	SOPRANOA
ARTAZA, Carmen	MEZZOSOPRANOA
BETTINGER, Thomas	TENORRA
BLANCO, Gabriel	BARITONOA
BOUCHARD-LESIEUR, Marie-André	ALTUA
CAVALLIER, Nicolas	BAXUA
CONDE, Sara *	SOPRANOA
COOTE, Alice	MEZZOSOPRANOA
DE MOLINO, Irene *	SOPRANOA
ERDMANN, Monjca	SOPRANOA
FISCHESSER, Christof	BAXUA
FREDRICH, Mandy	SOPRANOA
GARCÍA, Lucía *	ALTUA
GARITANO, Aitor	KONTRATENORRA
GLUECKERT, Aj	TENORRA
GRIMALDI, Erika	SOPRANOA
GRINGYTE, Justina	MEZZOSOPRANOA
HERNÁNDEZ, Airam	TENORRA
HUCKLE, Claudia	ALTUA
IERVOLINO, Teresa	MEZZOSOPRANOA
IRIGOYEN, Begoña*	SOPRANOA
LABORERIA, Juan	BARITONOA
LAUROBA, Iker	BAXUA
LEHMKUHL, Wiebke	ALTUA
LÓPEZ, José Antonio	BAXUA
MIKELIC, Martina	MEZZOSOPRANOA
MONTIEL, M ^a José	SOPRANOA
NEWLIN, Matthew	TENORRA
O'NEILL, Simon	TENORRA
OTXOA PANDO, Ana	SOPRANOA
PETRENKO, Mikhail	BAXUA
PINATXO, Estitxu	ALTUA
REISS, Chen	SOPRANOA
RODRÍGUEZ, Margarita	SOPRANOA
RUEDA, Rafa	BAXUA
SÁENZ, Serena	SOPRANOA
SANTONI, Vannina	SOPRANOA
STYLIANAKI, Anna	SOPRANOA
URBIETA-VEGA, Miren	SOPRANOA
VALENCIA, Miguel *	BARITONOA
VILLAR, Lide *	SOPRANOA
VIVANCO, Iñigo María*	TENORRA
Wegener, Sarah	SOPRANOA
ZUBILLAGA, Ainhoa	MEZZOSOPRANOA
TOTAL / GUZTIRA	44
*PERTENECIENTES AL ORFEÓN / ORFEOIKO KIDEAK	7

**DIRECTORES / ZUZENDARIAK**

AFKHAM, DAVID

BILLARD, SÉBASTIAN

GONZÁLEZ, GARIKOITZ

IBRAHIMOV, FUAD

SAINZ ALFARO, JOSÉ ANTONIO

SHANI, LAHAV

TEBAR, RAMÓN

TREVIÑO, ROBERT

VICENT, JOSEP

URDAPILLETA, JON

ZEBERIO ETXETXIPIA, MIGEL

TOTAL / GUZTIRA: 11**OTROS COLABORADORES / BESTE LAGUNTZAILE BATZUK**

BENÍTEZ, Gorka (saxofoia)

DE LA RUBIA, Juan (organoa)

MUSIKENeko PERKUSIO ENSEMBLEA

ESNAOLA, Jon (perkusia)

GOLDAZARENA, Arturo (klarinetea)

MARTÍNEZ, Vixente (gitarra)

MENDOZA, Arkaitz (pianoa)

MENDIZABAL, Garikoitz (txistua)

OPRISOR, Teodora (pianoa)

RIFÓN, Gerardo (organoa)

RUBIÑOS, Borja (pianoa)

SASTRE, Iñar (pianoa)

URDAPILLETA, Jon (pianoa)

BAIGORRIKO GAITEROAK

IRUÑEKO ORFEOIA

ESPAINIAKO ABESBATZA NAZIONALA

MADRILGO ERKIDEGOKO ABESBATZA

ANTARA KORAI

EASO ESKOLANIA

EASO GAZTE ABESBATZA

GAZTELUBIDE ELKARTEA

GAZTAINAREN ORFEOIA

TOTAL / GUZTIRA: 22



Cuadro general de actuaciones Eskainitako kontzertu guztiak

FECHA/DATA	LOCALIDAD/LEKUA	OBRA/OBRA	ORQUESTA/ORKESTRA	DIRECTOR/ZUZENDARIA
2023/02/04	DONOSTIA	CARMINA BURANA (ORFF, Carl)	MUSIKENeko PERKUSIO ENSEMBLEA	SAINZ ALFARO
2023/03/04	MADRIL	BIGARREN SINFONIA "Lobgesang" (MENDELSSOHN, Felix)	SANTA ZEZILIA ORKESTRA KLASIKOA	IBRAHIMOV, FUAD
2023/03/19	DONOSTIA	VARIOS / ZENBAIT	ORGANOA	SAINZ ALFARO
2023/03/26	BARTZELONA	VARIOS / ZENBAIT	ORGANOA	SAINZ ALFARO
2023/04/16	DONOSTIA	VARIOS / ZENBAIT	PIANOA	SAINZ ALFARO
2023/04/23	HENDAIA	VARIOS / ZENBAIT	ORGANOA	SAINZ ALFARO
2023/05/11	ZALLA	VARIOS / ZENBAIT	PIANOA	SAINZ ALFARO
2023/05/13	LOGROÑO	VARIOS / ZENBAIT	PIANOA	SAINZ ALFARO
2023/06/27	DONOSTIA	CARMINA BURANA (ORFF, Carl)	MUSIKENeko PERKUSIO ENSEMBLEA	SAINZ ALFARO
2023/06/30	MADRIL	ZORTZIGARREN SINFONIA "Mila musikarien sinfonia" (MAHLER, Gustav)	ESPAINIAKO ORKESTRA NAZIONALA	AFKHAM, DAVID
2023/07/01	MADRIL	ZORTZIGARREN SINFONIA "Mila musikarien sinfonia" (MAHLER, Gustav)	ESPAINIAKO ORKESTRA NAZIONALA	AFKHAM, DAVID
2023/07/02	MADRIL	ZORTZIGARREN SINFONIA "Mila musikarien sinfonia" (MAHLER, Gustav)	ESPAINIAKO ORKESTRA NAZIONALA	AFKHAM, DAVID
2023/07/23	BAIGORRI	VARIOS / ZENBAIT	ET INCARNATUS ORKESTRA	ZEBERIO, MIGEL
2023/07/29	IRUN	VARIOS / ZENBAIT	IRUN HIRIA MUSIKA BANDA	GONZÁLEZ, GARIKOITZ eta URDAPILLETA, JON
2023/08/04	DONOSTIA	BEDERATZIGARREN SINFONIA (BEETHOVEN, Ludwig van)	ROTTERDAMEKO ORKESTRA FILARMONIKOA	SHANI, LAHAV
2023/08/05	SANTANDER	BEDERATZIGARREN SINFONIA (BEETHOVEN, Ludwig van)	ROTTERDAMEKO ORKESTRA FILARMONIKOA	SHANI, LAHAV
2023/08/18	DONOSTIA	ZORTZIGARREN SINFONIA "Mila musikarien sinfonia" (MAHLER, Gustav)	EUSKADIKO ORKESTRA eta NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA	TREVIÑO, ROBERT
2023/08/25	ROCAMADOUR (FRANTZIA)	REQUIEM (VERDI, Giuseppe)	ORCHESTRE SYMPHONIQUE DE LA GARDE RÉPUBLICAINE	BILLARD, SÉBASTIAN
2023/09/13	DONOSTIA	BIGARREN SINFONIA "Berpizkundera" (MAHLER, Gustav)	EUSKADIKO ORKESTRA	TEBAR, RAMÓN
2023/09/16	OÑATI	BIGARREN SINFONIA "Berpizkundera" (MAHLER, Gustav)	EUSKADIKO ORKESTRA	TEBAR, RAMÓN



2023/10/04	DONOSTIA	VARIOS / ZENBAIT	ORGANOA	SAINZ ALFARO
2023/11/17	DONOSTIA	BIGARREN SINFONIA "Lobgesang" (MENDELSSOHN, Felix)	EUSKADIKO ORKESTRA	SAINZ ALFARO
2023/12/10	ALACANT	CANT ESPIRITUAL (MONTSALVATGE, Xavier) eta BEDERATZIGARREN SINFONÍA (BEETHOVEN, Ludwig van)	ADDA – ALACANTEKO ORKESTRA SINFONIKOA	VICENT, JOSEP
2023/12/11	MADRIL	CANT ESPIRITUAL (MONTSALVATGE, Xavier) eta BEDERATZIGARREN SINFONÍA (BEETHOVEN, Ludwig van)	ADDA – ALACANTEKO ORKESTRA SINFONIKOA	VICENT, JOSEP
2023/12/12	ZARAGOZA	CANT ESPIRITUAL (MONTSALVATGE, Xavier) eta BEDERATZIGARREN SINFONÍA (BEETHOVEN, Ludwig van)	ADDA – ALACANTEKO ORKESTRA SINFONIKOA	VICENT, JOSEP
2023/12/13	BARTZELONA	CANT ESPIRITUAL (MONTSALVATGE, Xavier) eta BEDERATZIGARREN SINFONÍA (BEETHOVEN, Ludwig van)	ADDA – ALACANTEKO ORKESTRA SINFONIKOA	VICENT, JOSEP
2023/12/16	GASTEIZ	VARIOS / ZENBAIT	PIANOA	SAINZ ALFARO
2023/12/22	DONOSTIA	VARIOS / ZENBAIT	ORGANOA	SAINZ ALFARO
2023/12/28	DONOSTIA	VARIOS / ZENBAIT	ORGANOA	SAINZ ALFARO



Escenarios / Agertokiak

LOCALIDAD / HERRIA	LUGAR / LEKUA
ALACANT	ADDA, ALACANTEKO DIPUTAZIOAREN AUDITORIOA
* BAIGORRI	ETXEAUZIA GAZTELUKO LORATEGIAK
* BARTZELONA	SAGRADA FAMÍLIA BASILIKA
BARTZELONA	PALAU DE LA MUSICA CATALANA
* HENDAIA	SAN BIZENTE PARROKIA
* IRUN	SAN JOAN PLAZA
LOGROÑO	RIOJAFORUM AUDITORIOA
MADRIL	AUDITORIO NAZIONALA
OÑATI	ARANTZAZUKO SANTUTEGIA
* ROCAMADOUR	L'ALZOU HARANA
DONOSTIA	KURSAAL AUDITORIOA
DONOSTIA	MUSIKENE AUDITORIOA
DONOSTIA	KORUKO ANDRE MARIAREN BASILIKA
DONOSTIA	SAN BIZENTE PARROKIA
DONOSTIA	VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA
DONOSTIA	IESU ELIZA (Loiolako Erribera)
DONOSTIA	SAN MARTZIAL ELIZA (Altza)
SANTANDER	JAIALDIEN JAUREGIA "Argenta aretoa"
* ZALLA	ZINE ANTZOKIA
ZARAGOZA	KONGRESU JAUREGIKO AUDITORIOA
GASTEIZ	PRINCIPAL ANTZOKIA
LUGARES VISITADOS / BISITATURIKO LEKUAK	21
PRIMERA VEZ / LEHEN ALDIZ	6



Censo de cantores / Abeslarien errolda

	PLENO DERECHO / ESKUBIDE OSOKOAK	ASPIRANTES / ABESLARI GAIK	SITUACIÓN ESPECIAL / EGOERA BEREZIA	TOTAL GUZTIRA
SOPRANOS / SOPRANOAK	43	18		61
ALTOS / ALTUAK	20	17	1	38
TENORES / TENORRAK	23	14		37
BAJOS / BAXUAK	27	15		42
TOTAL / GUZTIRA:	113	64	1	178

SOPRANOS PLENO DERECHO / SOPRANOAK ESKUBIDE OSOKOAK

ALZORRIZ, Alicia Puy	DE CRISTOBAL, Laura	IRIGOYEN, María Begoña	OTADUY, Laida Brigitte
ANSO, Maider	DE GRACIA, Amaya	JAUREGUI, María Lourdes	SAIZAR, Maialen
ARNAIZ, Mónica María	DEL MOLINO, Irene	LARRAÑAGA, Miren	SALABERRIA, Ana M ^a
ARRUTI, María	DÍAZ, Silvia	LIZARRAGA, Amaia	SALABERRIA, M ^a Isabel
BAROJA, Juncal	ECHEVERRIA, Amaya	LIZARRAGA, María Magdalena	SÁNCHEZ, Ainara
BELLOSO, Leire	EPELDE, Miren Argia	MANGAS, Nerea Aingeru	SOBRINO, Vanesa
BONED, Lucía	FUENTES, Lucía	MARIN, Miren Andone	URRUTIKOETXEA, Ane
BRAÑA, Maialen	GARTZIA, Vinaixa	MARTIN, M ^a del Carmen	URRUTIKOETXEA, Elixabet
CATALINA, Maria Pilar	GIRÓN, Charlotte	MENDIBIL, Leire	VENZALA, Cristina
CENDOYA, Maria	HUARTE, Mariola	MUNDUATE, Diana	VILLAR, Lide
CONDE, Sara	IBARMIA, Salomé	OPRISOR, Teodora	

SOPRANOS ASPIRANTES / SOPRANOAK KANTARIA GAIA

ARENAS, Nora	FABO, Ainhoa	NAVAS, Marta Ana	URTIZBEREA, Irati
BLANCO, Zulyma	FERRERES, Maddi	OLASO, Iciar	URTXEGI, Malen
CEBERIO, Jone	GARCÍA, Adriana	RAMIREZ, Helga	YARZABAL, Nerea
DA SILVA, Itsasne	MARTÍNEZ, Amalia	SANTOS, Jokine	
ECHEVERRIA-ARTEUN, Ainhoa	MUJIKA, Nora	URRETAVIZCAYA, Maialen	

ALTOS PLENO DERECHO / KONTRALTOAK ESKUBIDE OSOKOAK

ANABITARTE, Nerea	CASTAÑEDA, Irati	GUERENDIAIN, Aroa	MENDIZABAL, Maialen
ARABAO LAZA, Ane	DE LAS CUEVAS, M ^a Sol	LANDA, Blanca	MIRASOLAIN, Jugatx
ARABAO LAZA, Elixabete	ECEIZA, Uxue	LARREA, Maryan	OLACIREGUI, Jone
ARRILLAGA, Berta	FRANCO, Ana	LASA, M ^a Lourdes	SOROZABAL, Maria
BUENO, Itziar	GARCIA, Lucía	MARTIN, M ^a Isabel	ZAPIRAIN, Amaia
			ZAPIRAIN, Mónica *

ALTOS ASPIRANTES / KONTRALTOAK KANTARIA GAIA

ALBRECHT, Nahia	GARMENDIA, Ainitze	MANEIRO, Noah	ORMAZABAL, Maria Nerea
ARTAZA, Coro	GIL, Arantza	MANTEROLA, Enara	PODOLAK, Elzbieta
DÍAZ, Eider	GOIKOETXEA, Noa	MIRANDA, Nora	RUIZ, Sara
FALQUE, Lucía	INTXAUSTI, Inge	MURUGARREN, Larraitz	UGARTE, Amaia
			ZUBELDIA, Maider



TENORES PLENO DERECHO / TENOREAK ESKUBIDE OSOKOA

ADURIZ, Agustin	BEHOBIDE, Álvaro	LIZARZA, Juan Paulo	TAPIA, Imanol
AGIRRE, Juan Bautista	DE VILLAR, Fernando	ORMAETXEA, José Luis	TORRES, Francisco Javier
AIZPURUA, Imanol	GABELLANES, Unai	ORMAZABAL, Xabier	VEGA, José Antonio
ANTXIA, Julen	GAMBOA, Néstor	PUENTE, Javier	VIVANCO, Iñigo
ARTANO, Álvaro	HEREDIA, Pedro	QUEREJETA, Ángel	ZAMORA, José Antonio
ASTIAZARAN, Jagoba	LABORERIA, Iñigo	SPUCCHES, Manuel	

TENORES ASPIRANTES / TENOREAK KANTARIA GAIA

BERECIARTUA, Iñaki	GAMBOA, Oier	GOZATEGUI, José	LÓPEZ, Andrés
ETXABE, Jon	GARCIA, Marco	LARRAÑAGA, Beñat	LÓPEZ, Francisco Manuel
FERNANDEZ, José Mari	GARCIA, Ricardo	LARRAURI, Jon	MARITXALAR, Ricardo
			NAVAS, Emmanuel José
			ORONoz, Jon

BAJOS PLENO DERECHO / BAXUAK ESKUBIDE OSOKOA

ACHUCARRO, Juan	BUTINI, Fermín	GONZÁLEZ, Aritz	URDAPILLETA, Jon
ARAMBURU, José Luis	CORTA, Nicolás	GONZALO, Pablo	VALENCIA, Miguel
ARANBURU, Eneko Amaiur	ECHEBERRIA, Juan M ^a	LASA, Rafael	VALLE, Isaac
ARRIZABALAGA, Gotzon	ECHENIQUE, Aitor	LIZARRAGA, Juan Cruz	YAÑEZ, Hodei
ARZA, Juan	EMAZABEL, Juan Manuel	MORALES DE RADA, Borja	ZUBILLAGA, Ramón
AZPIROZ, José Luis	ETXABE, Jon Imanol	PALOMO, Javier	ZUBIRIA, Mikel
BELTRÁN, Endika	GARCÍA, Sergio	PASTOR I, Vicent	

BAJOS ASPIRANTES / BAXUAK KANTARIA GAIA

ARENAS, Mikel	GONZÁLEZ, Oscar	PÉREZ, Beñat	ZABALZA, Jon
ARRIANDIAGA, Urko	IBARLOZA, Errapel	REKALDE, Eneko	ZUBIRIA, Iñaki
BELLOSO, Javier	MERINO, Unai	SOLANO, Juan Carlos	
CARRA, Carlos	PAYO, José María	STERN, Iñigo	

**Situación especial, excedencia o fuera de listas / Egoera berezian, eszedentzian edo serrendetatik kanpo*

Director / Zuzendaria: SAINZ ALFARO, José Antonio



Resumen artístico anual


Urteko laburpen artistikoa

CONCIERTOS SINFÓNICO-VOCALES Y ÓPERAS/ KONTZERTU SINFONIKO-BOKALAK ETA OPERAK	17
CONCIERTOS POLIFONÍA – FOLKLORE / POLIFONIA ETA FOLKLORE KONTZERTUAK	12
GRABACIONES / GRABAKETAK	1
ACTUACIONES EN SAN SEBASTIÁN / EMANALDIAK DONOSTIAN	11
ACTUACIONES EN GIPUZKOA / EMANALDIAK GIPUZKOAN	2
ACTUACIONES EN EL RESTO DEL PAÍS VASCO / EMANALDIAK EUSKAL HERRIAN	3
ACTUACIONES EN OTRAS COMUNIDADES AUTÓNOMAS / EMANALDIAK BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUETAN	11
ACTUACIONES EN EL EXTRANJERO / EMANALDIAK ATZERRIAN	3
LUGARES VISITADOS / BISITATUTAKO LEKUAK	21
ORQUESTAS / ORKESTRAK	9
DIRECTORES / ZUZENDARIAK	11
ENSAYOS EN LA SEDE DEL ORFEÓN / ENTSEGUAK ORFEOIAREN EGOITZAN	119
DÍAS DE CONCIERTOS, ENSAYOS EN OTRAS SEDES, VIAJES y MISAS Y ACTOS VARIOS / KONTZERTUAK, BESTE EGOITZ BATZUETAN ENTSEGUAK ETA BIDAIK IZAN DITUGUN EGUNAK	92
DÍAS TOTALES DE DEDICACIÓN / DEDIKAZIO EGUNAK GUZTIRA	178




Dedicatorias / Eskaintzak

David Afkham - Director / Zuzendaria
Junio 2023 / 2023ko ekaina



Sarah Wegener -Soprano / Sopranoa
Junio 2023 / 2023ko ekaina





Juan de la Rubia - Órgano / Organoa
Marzo 2023 / 2023ko martxo

Ha sido una experiencia increíble, emocionante y un sueño cumplido tocar un concierto con el Orfeon Donostiarra. La intensidad de nuestros pianos, la grandez de nuestros fuertes y el corazón con el que cantáis me enamoran.

Gracias de corazón y hasta la próxima!

Lahav Shani - Director / Zuzendaria
Agosto 2023 / 2023ko abuztua

It was an absolute pleasure to share with you my Spanish Pabat!

Thank you for an unforgettable Beethoven 9!

All my best,



Carmen Artaza – Mezzosoprano/ Mezzosopranoa
Agosto 2023 /2023ko abuztua

It was an absolute pleasure to share
with you my Spanish Debat!
Thank you for an unforgettable Beethoven 9!
All my best,
Lakhan Ghani

Josep Vicent -Director / Zuzendaria
Diciembre 2023 /2023ko abendua


Con tanta
emocion que
llevas tantos
puntos !!
no tengo palabras !!
Gracias,
Gracias por seguir
viviendo !!
Unas
Josep Vicent



Gráficos / Grafikoak


CONCIERTOS Y GRABACIONES / KONTZERTU ETA GRABAZIOAK

	2018	2019	2020	2021	2022	2023	TOTALES
Sinfónicos/Sinfonikoak	24	18	2	9	28	19	100
Varios/Denetarikoak	14	10	7	20	22	10	83
Grabaciones/Grabazioak	1	1	1		1	0	4
TOTAL/GUZTIRA	39	29	9	29	51	29	186



	2018	2019	2020	2021	2022	2023	TOTALES
País Vasco	21	16	6	21	25	14	103
CC AA	9	7	1	5	14	12	48
Extranjero	8	5	2	3	11	3	32
TOTAL	38	28	9	29	50	29	183


ACTUACIONES / EMANALDIAK






LANEGUNAK GUZTIRA / DÍAS DEDICACIÓN

	2018	2019	2020	2021	2022	2023	TOTALES
Sede Orfeón/ Orfeoiko egoitzan	109	125	80	107	111	117	649
Días conc., actos, ensayos en otras sedes y viajes / Kontzertu, bidaia eta beste egoitzetako entseguak	84	52	35	78	87	61	397
Días totales dedicación / Lanegunak guztira	193	177	115	185	198	178	1046



ACTIVIDADES DOCENTES / IRAKASKUNTZA-JARDUERAK


	2018-2019	2019-2020	2020-2021	2021-2022	2022-2023	2023-2024
Taller	154	145	57	117	99	99
Orfeoi Txiki (Coro infantil)	74	78	60	11	8	0
Pequeños cantores	36	27	19	15	7	0
Orfeoi Gazte	53	59	60	58	17	0
Violin-Chelo	16	19	8	9	10	10
Coros escolares	118	75	0	25	30	35
TOTALES *	451	403	204	235	171	144





2017	2018	2019	220	2021	2022	2023
214	221	241	243	250	258	177

EVOLUCIÓN ORFEONISTAS / ORFEOILARIEN BILAKAERA



SOCIOS / BAZKIDEAK

	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
DONOSTIA	666	679	681	662	639	598	596
GUIPÚZCOA	126	157	146	145	146	148	158
MADRID	30	24	31	27	28	29	29
OTROS	47	29	36	33	30	27	27
Total	869	889	894	867	843	802	810

